

Aurkibidea

Sarrera	2
Metodologia	2
Lanarekin lortu nahi diren helburuak	2
Kokapena	3
Euskara	3
Euskalkiak eta euskara batua	3
Ondarroako hizkerak	4
Argota eta hizkera sektoriala	5
Lagunarteko hizkera eta jasoak	8
Gazte-hizkera	9
Irakaskuntza eta euskara	11
Komunikabideak eta gazte-hizkera	13
Transmisioa eta sena	14
Erabilera	15
Ahozko erabilera	15
Idatzizko erabilera	17
Euskalkien inguruko aldaketak	18
Ondorioak	23
Bibliografia	24
Eranskinak	26

GAZTEAK ETA EUSKALKIAK

Sarrera

Beti gustatu izan zait euskalkiak ikertzea, euskalkiak izan duten berezitasunak aztertzea. Kuriositate horrekin, ondarrutarraren inguruan ere hainbat lan egin izan ditut; esaterako, gazteen eta nagusien hizkeren desberdintasunak bilatu; udalerrri bereko baserri eta herriko hiztunen aldeak bereizi; ondarrutar baten transkribapenez baliatuz, ondarrutarraren ezaugarriak aztertu...

Hiznet-en lan hori proposatzen zela ikusirik, bi aldiz pentsatu gabe, Ondarroan gazteak euskalkiaren inguruan zein jarrera zuten ikertzea otu zitzaidan.

Metodologia

Hasteko, gaian kokatzeko hainbat liburu eta artikulu irakurri eta gaiari sarreratxo bat egin diot.

Inkesta batzuk ere egin ditut. Inkesta egiteko prest zeuden 20 urtetik 30 urte bitarteko 20 pertsona bilatu nituen. Inkesta horietan ondarrutarrez idazteko eskatu nien, eta honako galdera hauek egin nizkien: gurasoak nongoak dituzten, zer hizkera hitz egiten duten, euskara batua eta euskalkia noiz erabiltzen dituzten, zenbat euskalki ezagutzen duten, erdara erabiltzen badute...

Inkestan oinarrituz, Kikereren ikasgaiko 7. atalean aipatzen diren puntuak landu ditut.

Lanarekin lortu nahi diren helburuak

- Gazteei gurasoengandik transmisiorik heltzen zaien ikustea.
- Gazteek euskara non eta norekin hitz egiten duten aztertzea.
- Gazteek euskalkia eta batua noiz eta norekin erabiltzen dituzten aztertzea.
- Teknologia berrietan zein hizkera erabiltzen duten jakitea.
- Honekin guztiarekin gazteek euskalkiei begira duten ikuspegia eta horren ondorioa ateratzea.

Kokapena

Lana Ondarroan kokatu dut. **Ondarroa (ondar-ahoa)** Bizkaiko ekialdean (Gipuzkoarekin mugan) dagoen herri ertain bat da. Eustateko 2001eko datuen arabera, Ondarroan 9.732 biztanletik 7.217k euskara dute ama-hizkuntza. %83,4 euskaldunak dira erabat, eta %14,6 ia euskaldunak dira, hau da, euskara ulertzeko gai direnak, baina egiten ez dutenak... Beraz, orokorrean, %98 dira euskaldunak, guztira. Erdaldunak, gehien bat Espainiatik etorriak izaten dira, baina aspaldian gero eta gehiago dira Afrikatik (Senegal, Kenia...) datozenak, eta baita beste hainbat herrialdeetatik ere.

Ondarroan bizitza euskaraz egiten da. Hiru ikastola daude, bi ikastola eta bat eskola publikoa. Ikastoletan gaur egun ez dago A eredurik. Ikastola batean eta publikoan euskara batua da irakaskuntzan erabiltzen den hizkera. Bestean, ordea, bizkaiera da erabiltzen duten hizkera. Bizkaieraz hitz egiten dute irakasleek, eta bizkaiera da Hizkuntza eta Literatura arloan irakasten duten hizkera. Ikastola horretako ikasle askok batuarekin arazoak izaten dituzte gero.

Euskara

Mendebaldeko Europan dagoen hizkuntzarik zaharrena da euskara. Euskarak bizirik dirau, nahiz eta antzina indoeuoparren hizkera ugari izan zituen aldamenean, eta nahiz eta latina izan hizkuntza nagusia. Euskarak indarra atera du nonbaitetik bizirik irauteko, euskarak edo euskal hiztunek. Aspalditik, okzitaniera, eta oraintsu frantsesa eta gaztelaniaren erdian bizi da, eta bi hizkuntza horiek munduko hizkuntza handienetakoak dira. Euskara hizkuntza txikia da, eta bitarteko gutxi ditu. Bere aurka izan ditu indar guztiak eta baita hizkuntza handiak ere. Hala ere, euskara ez da hil. Harritzekoa da, benetan, euskara egon den egoeran betiko galdu ez izana. Euskarak indar handia izan du, eta orain ere hala izaten jarraitu behar du.

Euskalkiak eta euskara batua

Komunikatzeko betidanik izan dugun tresna izan dira euskalkiak. Norbere herrikoekin edota ingurukoekin komunikatzeko izan dugun tresna. Norberaren seme-

Euskalkiak eta gazteak

alabei transmititzeko tresna. Baina, norberaren herriko eta ingurukoetatik aparte, euskaldun askok elkar ulertzeko arazoak izaten zituzten zirela-eta. Gehienek erdarara jotzen zuten, euskaldunak izanik.

Euskalkien ugaritasuna mendien eragina omen da. Euskalkiak harreman-sare batzuen ondorio dira, eta harreman-sare horien osaketan zerikusi handia izan dute orografiak eta komunikabideek, besteak beste; baina zergatik ez dira horren desberdinak Azkoitia eta Azpeitiko hizkerak? Leitza eta Berastegikoak? Euskal Herria oso menditsua da, eta mendiek harremanetarako oztopoak jartzen dituzte. Baina, oztopoak oztopo, mendien bestaldean lana, merkatua edo beste zerbait zegoenean oztopoak desegin egiten ziren. Eta hau da Azpeitin eta Azkoitian, eta Leitza eta Berastegin gertatuko zena, elkarrekin komunikatu beharrak hizkera antzekoak sortuko zituen.

Euskararen historian literatura eta merkataritza garrantzitsuak izan dira. Literaturan, euskalkietan idatzitako liburuak dauzkagu, eta liburu horiek ez ziren Euskal Herriko euskaldun guztiengana heltzen, guztiek ez baitzuten ulertu ere egingo. Idazle bakoitzak zekien euskalkian idazten zuen, eta jakina, beste bazterrean bizi zenak ez zuen ulertuko. Merkataritza ere aipatzeko moduko gaia da, hor ere arazoak egon izan baitira beti. Probintzia desberdinetako jendeak ez zuen elkar ulertzen tratuak egiterakoan, erdaraz ez bazen.

Euskaldunak zeuzkaten zailtasunak ikusita, euskaltzale asko –euskaldunak elkarren artean ulertzeko asmoz– euskara bateratzeko saioak egiten hasi ziren, batzarrak antolatzen... Batuaren aldeko eta kontrako iritziak egon ziren, eta arazoa korapilatu egin zen. Oinarri hartutako euskalkia gipuzkera izan zen, batez ere, eta bazeuden oinarrizko euskalkia beste bat izan behar zela ziotenak, eta batua egin behar ez zela esaten zutenak ere. Euskaltzaindiak 1968an euskara batu horren aldeko apostua egin zuen, eta euskara batua sortu zen. Urte horretatik aurrera, Euskaltzaindia jo eta su dabil lanean, batu hori guztiengana iritsiko den euskara bihurtzeko asmotan.

Askotan pentsatu izan da euskara batuaren sorrerak euskalkiak bazter utziko zituela, euskalkiak galaraziko zituela... Gaur egun, ordea, elkarren osagarri direla

Euskalkiak eta gazteak

badakigu. Kontua bata zein bestea noiz erabili behar ditugun jakitea da. Bakoitzak bere eremua dauka, horregatik dira elkarren osagarri.

Ondarroako hizkerak

Ondarroan hainbat hizkera mota bereizten dira. Txikienetatik hasita, haur-hizkerak, jolas-hizkerak... aurki genitzake. Hizkera horiek oso antzekoak izaten dira euskalki guztietan, beraz, ez naiz horiek azaltzen hasiko. Aipatzeko modukoak dira, ordea, argota, lagunarteko hizkera eta gazte-hizkera. Gazte-hizkera landu nahi den lan honetan, argota eta hizkera sektoriala eta lagunarteko hizkera ezagutzea ezinbestekoak dira, gazte-hizkeran biak barneratzen baitira.

Argota eta hizkera sektoriala

Koldo Zuazoren hitzak erabiliz azalduko dut zer den, ederto egiten duelako eta oso motzean, gainera. Bere hitzetan: "Ikasleen eta lanbide bereko hiztunen artean sortzen dira argotak". Bereizgarri asko izan arren, lexikoa omen da hizkeraren bereizgarri nagusia.

Askotan argota eta hizkera sektorialak aipatzean nahasmendua sortzen da. Ez ditugu behar bezala bereizten. Argota profesio bateko kideek elkarren artean komunikatzeko daukaten hizkera berezia da, eta hizkera sektoriala, hizkera profesionala da, lanabesak...

Ondarroan bertan argotak aurkitzen ditugu, eta baita hizkera sektorialak ere. Arrantzale herria izan da betidanik Ondarroa, eta horrek arrantzale hizkera izatea baldintzatu du. Arrantzaleez gain, baserritarrak ere ugari egon dira, eta arrantzaleekiko euskara oso bereizgarria izan dute.

Kontuan hartu behar dugu Ondarroa hiribildu sortu aurretik Gorozika (baserri auzoetako bat, hamalau auzoetako bat) existitzen zela. Ondoren sortu zen Ondarroa.

Orain ez gutxi, 2005ean, ikerketa¹ bat egin nuen Ondarroako herriko (arrantzale) eta baserriko hizkerak bereizteko, eta hainbat desberdintasun aurkit nituen. Ondarroako baserrietako hizkerak antz gehiago dauka ondoko herriko Berriatuako hizkerarekin Ondarroako herrikoarekin baino. Bai fonetikan, bai intonazioan, bai lexikoan eta baita hitzak jateko (ekonomiaren) kontuan ere asko nabari da desberdintasuna.

¹ Ikerketa eranskin gisa sartu dut atzealdean, begiratu bat eman nahi izanez gero.

Koldo Zuazok honako hau aipatzen du, hots, “desberdinak direla portualdean eta inguruko auzoetan bizi diren herritarren hizkerak: Bermeo, Ondarroa, Zumaia eta Hondarribia dira zenbait adibide”. Ondarroan dagoen desberdintasun nabarmenetako bat aipatzearen, aditza hartzen da. “NOR-NORI saileko adizkietan *g-* ahoskatzen dute arrantzaleekin hartu-emana duten bizilagunek: *gako* `zion´, *gasku* `zaigu´... Baserri auzoetan, ostera, *j-* da ahoskera: *jako*, *jaku*...”. Baserrietako ahoskera bera daukate Ondarroaren ondoko Bizkaiko beste herrialde batzuetan ere; esaterako, Berriatuan, Markinan...

Beste adibide batzuk aipatze aldera, Mikel Etxaburuk² bere tesian jaso dituen hitz batzuk ekarriko ditut gogora. Hainbeste hitz agertzen dira tesi horretan, baina herrian gaur normaltasunez erabiltzen diren batzuk hauek dira: *lantzoi* `arraina´ gaur egun “tonto” edo esateko erabiltzen da; *popi* `itsasontziaren atzealdea´ “ipurdiari” ere deitzen diogu; *txikota* `itsasontziak portuan lotzeko soka edozein sokari ere esaten diogu; *lanbasa* `bateletako ura lehertzeko tresna (lampazo)´ gaur egun, zorugarbigailuari deitua...

Baserritarrek ez dituzte hitz hauek erabiltzen. *Popi* esateko *ipurdia* erabiltzen dute, *txikota* esateko *soka*, *lanbasa* esateko *fregona*...

Baserrietan ere hainbat hitz daude herrian erabiltzen ez direnak, nekazaritza eta abeltzantzarekin lotura dutenak.

Josune Ariztondok³, ondarrutarra den aldetik, zera aipatzen du: “arrantzaleen artean beti egon da komunikazioa eta hurbilketa bat. Ondarrutarra saiatzen da getariarrez hitz egiten eta gauza askotarako hurbildu egiten da gainera. Berdin Hondarribikoarekin, eta alderantziz. Nik etxean ikusi dut hori aitarekin. Berak urteetan jaso izan du hori eta gauza asko ikasi. Aldiz, baserrian bizi izan dena beti isolatuago bizi izan da eta kaleko gunetik apur bat urrutiratuta dauden baserrietara hizkuntzan aldea dago”.

Ariztondok esan bezala, arrantzaleak beste hizkera batzuetan hitz egiten saiatzen omen ziren. Tratu asko egin behar izaten zituzten beste herri batzuetan eta elkar ulertu beharra zeukaten. Baina, baserritarrek ere askotan egokitu beharko zituzten beraien hizkerak azokara jaisten zirenean. Merkataritza kontuak daude bi kasuetan eta tratuak egin behar direnean, beharrak hizkera ulergarriago bat egitera eramatea normala da.

² Etxaburu Osa, Mikel (2002) *Ondarruko arrantzaleen lexikoa*. Tesia.

³ *Larrun* aldizkariko 29. zenbakian

Euskalkiak eta gazteak

Egia da, bestalde, arrantzaleak herritik urrun joaten zirela eta baserritarrak, normalean behintzat, herrian bertan egoten zirela. Beraz, hor egongo da bereizgarritasuna.

Aipu hauek irakurri ondoren, argi geratzen da Ondarroan bizibidearen araberako hizkerak ditugula; arrantzaleek eta baserritarrek ez dutela berdin hitz egiten eta horien senideek ere ez, jakina.

Gazte-hizkera erabiliko duten gazteak baserri giroan edo arrantzale giroan jaiok izango dira, eta horrenbestez, hizkera bat zein bestea erabiliko dute. Horregatik dute garrantzia argotak eta hizkera sektorialak gazte-hizkeran.

Aurretik aipatutako ikerketa egiten ibili nintzenean, baserrietan bizi ziren gazteek bietara hitz egiten zutela aipatu zidaten, herrian herrikoa (ondarrutar) eta etxean mendikoa (baserritar). Dagoeneko ez dago baserrian bakarrik dabilen pertsonarik (akaso nagusiren bat), baina, gazteak eskolara herrira jaisten direnez, herrikoa ere ikasi egiten dute.

Lehen alderantziz gertatzen zen. Baserri auzoetan zeuden eskolak eta herritik baserrietara joaten ziren gazteak ikastera. Horregatik iraun du baserriko. Baina, gaur egun, baserrietan bizi den jende gutxi dago. Gainera, eskolak herrian daude, eta horren ondorioz baserriko hizkera gero eta gutxiago entzuten da.

Lehen arrantzale guztiak ziren ondarrutarrak, ia denak. Orain, arrantzale ondarrutar oso gutxi geratzen dira eta beraz, lehen erabiltzen ziren hitz asko galdu egin dira, esamolde asko galbidean daude eta arrantza-tresnak izendatzeko lexikoa ere gutxirek ezagutzen dute. Hori nabarmen ikus daiteke Mikel Etxabururen tesian. Bertan hainbeste hitz eta esamolde agertzen dira eta erdiak dagoeneko ez dira erabiltzen.

Egoera asko aldatu da bai arrantza munduan, bai baserri munduan. Baina desberdintasunak mantentzen dira oraindik. Hala ere, gazteek antzera hitz egiten dute. Desberdintasunak pertsona helduetan nabaritzen dira.

Lagunarteko hizkera eta jasoa

Lagun artean egon, nagusiagoekin egon edo gure adin berekoekin egon desberdin hitz egiten da. Antzina, nagusiei errespetuzko *berorika* hitz egin behar zitzaien. Gaur egun, eta Ondarroan behinik behin, adin guztikoei era beretsuan hitz egiten zaiela esango nuke. Gazteak gazte-hizkera erabiliko dute edozeinekin hitz egiteko eta nagusiek beraiena. Zuazok zera dio: “desberdinak izan ohi dira hitzak eta esapideak”. Badaude adierazpide eta esaera batzuk lagunekin bakarrik erabiltzen direnak; eta gurasoek ere beraien lagunekin erabiliko dituztenak. Hala ere, lagunekin eta gurasoekin erabiltzen den hizkera beretsua dela esango nuke. Kike Amonarrizi behin entzun nion bezala, gazteak gurasoengandik desberdindu duen hizkera bat lortu nahi du –kontzienteki edo inkontzienteki–, beraz, gurasoen aurrean ahalik eta hizkera bereizgarriena egiten saiatuko da; bera eta gurasoak adin desberdinetakoak direlako, eta hori nabarmendu egin behar delako, nola edo hala.

Ondarroan oso arin hitz egiten da lagun artean, eta horrek hitzak laburtzea eta bata bestearekin lotzea eragiten du. Arau fonologikoak asko aldatzen dira; esaterako, *Ondarroa* bera [Ondarru] esaten dugu guztiok, baina badakigu *Ondarroa* esan behar dugunean hala egiten. Beste adibide batzuk ematearren: *etxi, neski, mutile, naranji, liburu, soki...* Baina badakigu batuan esan behar ditugunean *etxea, neska, mutila, naranja, liburua, soka...* esan behar ditugula. Eta aditzari erreparatzen badiogu, mozketa ugari egiten ditugula ikusiko dugu: *emoztaxun* (eman iezadazu), *etorrikoza* (etorriko zara), *detxukotsut* (deituko dotsut, deituko dizut)...

Euskaldun askok era berezia dauka lagunarteko hizkera egiteko: aditz alokutiboak erabilia. Ondarroan, ez dut hikan hitz egiten duen inor ezagutu. Pertsona nagusiei galdetu izan diet, baina haiek ere ez dute ezagutu izan. Ondarroatik hurbil, Mutrikun, Berriatuan eta Markinan egiten da (Markina-Etxebarrin adibidez asko erabiltzen da; beste herrietan galtzen ari delako susmoa dago) hika, eta alde horretatik, oso arraroa da Ondarroan hitanorik ez aurkitzea.

Gazte-hizkera

Zalantza ugari sortzen dira gazte-hizkera definitzerako orduan.

Kike Amonarrizek azken bost edo sei urtetan gazte-hizkera mota berri bat sortu edo gazte-hizkerak sortu eta ugaltu direla uste du, eta ez soilik kontzeptua, baita hizkera bera ere. Fenomeno berria da gazte-hizkerarena, adin hauetako gaur egungo gizarte egitura soziolinguistikoak eta beraien praktika linguistikoak, orain arte ezagutu ditugunetik oso bestelako ezaugarriak aurkezten dituztelako, kuantitatiboki nahiz kualitatiboki. Berezko ezaugarriak dituen hizkera dela dio: euskara nahasia, adierazkortasuna bilatzen duena, eta Euskal Herri osoan gertatzen omen da.

Gazte-hizkeraren definizioa ematea ez da erraza. Baina gazteek egiten duten hizkera, gazteek beraien beharrezanetarako behar duten hizkera da. Beraiek sortzen dutena, dakitenetik abiatuz.

Gazteek euskalkia erabiltzen dute beraien adierazkortasuna azaltzeko. Hizkerarik indartsuena euskalkia da gazteen artean, eta hortik abiatzen dira gazte-hizkera eraikitzeko.

Euskalkia ahoz aho dabilenez kanpoko eragin gehiago nabaritu da, eta eragin horrek euskalkian beste forma batzuk sartzea ekarriko du, euskalkia aldatu egingo du, alegia. Bizirik dagoen oro aldatu egiten da, eta euskalkia bizirik dagoenez, aldaketa nahitaezkoa da. Batua, ordea, ez da euskalkia beste aldatuko, ez baitu euskalkiaren besteko bizitasunik, nahiz eta batua ere gero eta biziagoa dagoen.

Gazteak hara eta hona dabilta, eta bizkaitarrak giputzekin, nafarrak zuberotarrekin... elkartzen badira elkarren esamoldeak eta hitzak hartuko dituzte. Hori telebistaren eraginez ere gerta daiteke, eta adituek aberasgarritzat jotzen dute, halako nahasketak egitea.

Gazteek hainbat euskara mota entzuten dute egunero (familiar, eskolan, lagunartean, telebistan, liburuetan, aisialdian...). Hala ere, entzuten duten musika, ikusten dituzten filmak, telebistako programak... gehienak erdaraz daude. Eta euskarazko komunikabideetan ere askotan jotzen dute erdarazko lokuzioetara. Haur askok marrazki bizidunak euskaraz ikusten dituzte, baina hazten direnean, ez dute ahots berdinak entzuten jarraitu nahi, ez dute haurrentzako marrazki bizidunen erregistro berdinean hitz egiten dieten pertsonairik egoterik nahi. Horregatik, erdarazko komunikabideetara jotzen dute. Horregatik eta euskarazkoa kate bakarra izanik, besteek aukera gehiago ematen dutelako, jakina.

Gazteak egunerokotasunean ibiliko dituen hitzak aurkitu nahi ditu.

Gazte batek eta hirurogei urteko batek ez dute berdin hitz egiten. Ez dute berdin hitz egiten Ondarroan, Bilbon, Ataunen, Anoetan, Elorrion... Eskolatuak eta eskolatu gabeak izatean dago desberdintasuna, gazteek batua eta beste euskalkiak ezagutzean... Hainbat dira desberdintasunak, gizartea bera aldatu da, orokorrean.

Antzinatek hona, izugarri aldatu da gure gizartea. Herriak hiritartu eta elebaker izatetik elebidun izatera pasatu gara. Komunikabideek ere indarra hartu dute. Hizkuntza era formalean lantzen hasi gara, ez-formala alde batera utzita. Eta hizkera formala oso garrantzitsua baldin bada ere, hizkera ez-formala ez dugu atzean utzi behar. Hizkera ez-formala gazteek askatasunez eta sormenez lortuko duten hizkera izan behar da. Gazteek ez dute beraien artean sekula hizkera formala erabili, eta ez dira orain hizkera formala erabiltzen hasiko, ez batuan, ez euskalkian. Gazte-hizkeran aurkitzen dute hizkera formaletatik alde egiteko, eta beraien beharrianak beteko dien hizkera erabiltzeko aukera.

Gazteek erabiltzen duten hizkera garrantzitsua da etorkizunerako. Orain dela urte asko 30. edo 50. hamarkadetan ez zen leku askotan euskararik entzuten, baina entzuten zen lekuetan, euskara askoz ere aberatsagoa eta jatorragoa zela diote.

Gaur egungo euskara kantitatean asko igo da. Gazte euskaldun gehiago dago, gazteek euskara ezagutzen dute, euskararen ezagutza igo da, baina erabilera ez da hainbeste igo. Hala ere, gazteen artean lehen baino euskara gehiago egiten da, eta Amonarriek dioen moduan hor sortzen da arazoa. Euskaraz egingo ez balute egiten ez dutela izango litzateke arazoa. Baina egiten dutenez, buruhaustea ematen duena beste zerbait bihurtzen da: nolako euskara egiten duten.

Euskarak duen erdaren eraginagatik, egoera politikoagatik, eta beste hainbat gauzengatik, alegia bizi ditugun badintzetan, ez da harrizkeoa, gertatzen dena gertatzea... Eta hain zuzen ere, horregatik dio Amonarriek direla hizkera horiek "normalki" erabiltzen direnak.

Gainera, gaur egungo gazteak euskara gutxien menderatzen duten gurasoen seme-alabak dira.

Ondarroan, guraso gehienak euskaldunak izanik ere, gizartea asko aldatu da eta inguruneak eragin handia dauka hiztunengan eta hizkuntzan bertan. Beraz, nik ez dakit "normala" den edo ez, baina kanpo-eragin handia dagoela esango nuke. Egiten

diren hizkera guztiek izango dituzte beraien zergatiak, eta lehen aberatsagoa izateak ere izango du arrazoia eta hori ere “normala” izango zen, eta halaxe zen.

Baina leku batzuetan, berez sortzen den gazte-hizkera hori beste leku askotan falta da. Eta nola liteke gazteak dauden lekuetan, herrietan, hirietan... gazte-hizkera faltatzea? Gazte-hizkerarik ez dutela esaten da, gazteak ez dutelako euskaraz hitz egiten. Gazteak erdaraz aritzen dira, euskarazko erregistrorik ezagutzen ez dutelako. Eta nola hitz egin euskaraz gazte erregistroak falta zaizkienean? Beraz, falta dena euskaraz aritzeko erregistro kolokiala da, eta gazteek erregistro kolokialik ez izateak gazte-hizkeraren gabezia dakar. Erregistro horiek lortzeko hainbat egitasmo eta lan burutu dira, honakoa da horietako adibide bat, Urtxintxa eta Ttakunek prestatua.

Gazte-hizkera bultzatzeko egitasmoa edo plangintza prestatu zuten Ttakunek eta Urtxintxak (2003), egoera informaletan euskarazko erregistro kolokiala lantzearen behar nabarmena ikusita.

Gazteek erregistro kolokialaren falta handia daukatela adierazten dute Ttakun eta Urtxintxakoek behin eta berriro. Esaterako askok eta askok ez du euskara erabiltzen haserretzen direnean eta ezta pozten direnean ere. Horrelako egoeretan erdarara jotzen dute gazteek, orokorrean. Ondarroan erregistro kolokiala oso garatuta dago, egunerokotasunean bizirik dago. Baina, hala ere, sentimenduak adierazteko, poza esaterako, erdarara jotzen dugu: *Ke guay! Ostia guapu! Ke grande!* Badigutu euskarazko esamoldeak ere: *Ederra! Ona! Zelako maju!* Egunaren arabera, batzuk zein besteak erabiltzen direla esango nuke, baina erdarara jotzeko erraztasun gehiago dago.

Erregistro kolokiala jasotzeko garrantzi berezia ematen zaio familiari. Familia, eskola, aisialdia, komunikabideak... dira erregistro honek funtzionatzeko oinarrizko zutabeak.

Eskolak eta aisialdiko jarduerak transmisioa lantzeko sekulako garrantzia daukate. Aisialdiko jardueretan egoera informaletan oinarritzen dira, eta ikastetxean erregistro kolokiala erabiltzeko aukera handia daukate: atsedenaldiran, txangoetan...

Azkenik, komunikabideak aipatzen dira. Komunikabideetan, ez daukagu tresna gehiegirik euskaraz, Telebista kate bakarra eta irrati batzuk baino ez.

Hauek dira Ttakun eta Urtxintxak transmisiorako eta gazte erregistro kolokiala bultzatzeko aintzakotzat hartzen dituzten puntu garrantzitsuenak.

Puntu horietan euskararen egoera nolakoa den argituko dugu.

Irakaskuntza eta euskara

Ikasleek eredutzat dituzten irakasleak aurkitzen dituzte eskolan, eta oso garrantzitsua izaten da ikasleentzat irakasle horiek zer hizkeretan hitz egiten duten zehaztea.

Leku askotan, Bizkaian adibidez, Koldo Zuazori entzunda, “zelan zagoz” galdetuz gero, “hori ez da holan esan behar, “nola zaude” esan behar da” erantzuten dizute gaztetxoek. Horrek lur eta zur uzten ditu hainbat eta hainbat guraso, aitona-amona etab. Gurasoek beraien hizkera ez dela ona pentsatzen dute, eta gazteek esan bezala hobeto badago, hala esan beharko dutela uste dute. Gaur egun, lehen baino gutxiago gertatzen da, orain euskalkiaren inguruan hitz egiten hasi direlako, eta euskalkia prestigiozko hizkera bat dela azaltzen ari direlako, leku gehienetan.

Baina, prestigiozko hizkera baldin bada euskalkia zergatik ez da irakaskuntzan euskalkirik erabiltzen? Gazteek uste dute eskolan erakusten diotena dela hoberena, eta beste guztia beheragoko mailakoa dela. Horregatik ez dute euskalkiak lekurik irakaskuntzan, batua goi-mailako funtzioetarako delako, -nazio mailako funtzioak-, eta euskalkiak behe-mailako funtzioetarako edo funtzio intimoetarako.

Larrun aldizkarian argitaratutako elkarrizketa batean zera esaten du Koldo Zuazok: “irakaskuntzan ikusten dituzu alderik alde dabilzan irakasleak, eta ez da kontuan hartzen horien euskara zelakoa den. Santurtziko bat topa dezakezu Antzuolan edo Ondarroan...”. Horrek bere alde onak ere izan ditzake, eta hori da Miren Azkaratek Zuazori erantzuten diona, alegia, hizkerak desberdinak badira, hizkerak ezagutzeko aukera izango dutela, eta asko ikasiko dutela elkarrengandik. Umeez ikusi egingo dute berea ez beste euskalkiak daudela, eta ez direla hain desberdinak, gainera.

Josune Ariztondo ere elkarrizketa horretako partaide zen, eta hasierako hariari eutsiz, honek ere gaztearentzat prestigiodun pertsonak –eta irakaslea prestigioduna da ume edo gaztearentzat– euskalkia erabiltzea oso garrantzitsua dela gaineratzen du.

Eskolak oinarria jartzen du askotan, euskara erakusten dute. Baina eskolak ezin du euskararen gramatika bakarrik landu, komunikazioa, adierazkortasuna... ere kontuan hartu behar ditu.

Gutxi edo asko, jende askok pentsatu nahi izan du eskola zela, transmisioarekin batera, euskararen irtenbidea. Baina hizkuntza gatazkak bizi-bizirik jarraitzen du.

Kike Amonarrizek Hezkuntza munduan landu behar zena zer den, non eta nola landu behar den... bereizteko Ikastolako Jardunaldi batzuetan parte hartu zuen. Amonarrizek garrantzitsutzat jotzen du “erabilera formaletarako landu behar den oinarri linguistikoa” izatea. Eta behin oinarri linguistikoa lortu ondoren, horren emaitza lortuko litzateke: erabilera ez-formala. Oinarriak dira garrantzitsuenak. Oinarriak izanez gero hizkera ez-formala sortzea erraza dela aipatzen du Amonarrizek.

Gainera, oinarri linguistiko hori zenbat eta hobe izan, hau da, “zenbat eta abesti gehiago jakin, zenbat eta espresio gehiago jakin, literatura, tradizioa, egungo euskara zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta baliabide gehiago izango dute bere hizkera ez-formala eraikitzeko”.

Gazteak oinarri linguistikoa ondo menperatzen duenean, araua puskatuko du gazte-hizkera sortzeko, “baina horretarako, nahita nahiezkoa da araua zein den ongi ezagutzea”.

Komunikabideak eta gazte-hizkera

Komunikabideak hain garrantzitsuak izanik daukagun egoera ez da batere ona.

Euskarari begira hutsune asko nabari dira. Gazte-hizkeraren kasuan, gehiegikeria asko ikusten ditugu; esaterako, telesail batean ama bizkaitarra, semea giputza eta alaba nafarra izatea... Gauza horiek nabarmenak dira, baina, hala ere, ez gara ohartzen gure gizartearen isla ere izan litezkela, kasu batzuetan.

Bakoitzak berea behar du hemen ere, kasu guztietan bezala. Programa bakoitzak hizkera berezia izan behar du, eta hala eskatzen du gainera, ikus-entzule mota, adina, gaia... desberdinak izaten dira eta ezinezkoa da guztiek hizkera mota bera erabiltzea. Ahalegin handia egin behar da erregistro desberdin horiek lortzeko, eta euskararen bertan ez badaude sortzeko edo asmatzeko. Orain, programa batzuk saiatzen dira eta bakoitzari bere hizkera mota eta bere eredu linguistikoa ezarri diote.

Azpeitian egindako gazte-hizkeraren jardunaldian komunikabideetaz ere aritu ziren, eta bertan Asier Larrinaga –Euskal Telebistako euskara arduraduna– egon zen. Gazte-hizkera telebistara iristen denerako, herrian hizkera hori zaharkitua gelditzen dela aipatu zuen Larrinagak. Telebista gazte-hizkeren atzetik dabil, baina berandu. Larrinagak dioen moduan telebistan gazte-hizkera imitatu egiten ei da.

Euskalkiak eta gazteak

Azpeitiko jardunaldi horietan argi geratu zen kontua zera da: euskara asko erabili behar dela, hori baita garrantzitsua: asko erabiltzea. Eta erabilera horri erakargarritasuna bilatu behar zaio, era berean. Jardunaldietan esan dute gazteentzako egiten den prentsan, gazte tonua ikusten dutela.

Oraingo aldizkarietan, Matraka esaterako; eta irratietan, Euskadi Gaztea esaterako, erregistro kolokiala entzuten dugu. Bakoitzak bere herriko hizkera erabiltzen du, bakoitzak bere erregistroa. Hala ere, herri-aldizkarietan idazten diren artikulua luzeagoak euskalkian idatzita badaude, leku askotan kostatu egiten da ulertzea.

Gurea ez den euskalkia entzuteko gero eta baliabide gehiago daudenez, erraztasun gehiagoz ulertzen ditugu, ondoko eta ez hain ondoko euskalkiak. Eta hori aberasgarria da guztiontzat.

Transmisio eta sena

Euskara betidanik transmititu izan da belaunaldiz belaunaldi. Euskarak izan dituen oztopo eta erasoengatik euskaldunok desprestigiatu egin dugu euskara, eta leku baten baino gehiagotan euskaraz egiteari utzi diote familia batzuk. Zuberoan masiboki, eta Bizkaian eta Gipuzkoan ere haur eta gazteek ez dute euskaraz egiten.

EAEen ere gazte asko ikastoletara joaten dira bizitza euskaldun bat egiteko asmoz, baina ikastoletatik irteten direnean erdaraz dihardute. Ikastola da beraien euskal gunea eta hortik irteteen erdaraz egiteko joera izugarria dute.

Gurasoak euskaldunak izanik ere, eta gurasoek haurrei euskara transmititzen badie ere, haur horiek gurasoekin ez daudenean erdarara jotzen dute.

Ondarroan, transmisioa bizirik dago, baina sena galtzen doala nabaritzen da. Txikitan beti zuzentzen ziguten gurasoek gaizki esaten zena. Orain gurasoek duda egiten dute gazteek esandakoa ondo eta gaizki dagoen. Aditzak gaizki erabiltzen dira, komunztadura gorde gabe, orainaldia eta lehenaldia bereiztu gabe, lehenaldia eta baldintza bereiztu gabe...

Nola pasa gara dena zuzentzetik ezer ez zuzentzera? Ondo dagoena nola esaten zen ere ahaztera heldu gara, eta badirudi batzuei ez zaiela axola. Erdaraz denok dakigu zer nola esaten den, eta zerbait gaizki esatean, segituan datoz barreak eta zuzenketak. Euskaraz, ordea, gaizki esandakoa gaizki esanda geratzen da, eta

Euskalkiak eta gazteak

askotan gaizki esandakoa zuzentzen bada (gero eta gutxiagotan egiten bada ere), ez dio axola eta “bardin dotsa” entzun behar izaten dugu.

Horregatik, askotan ez da zuzentzeko gogorik ere izaten... eta norbera ere forma zuzenak zein diren ahazten joaten da, sena galtzen eta denek egiten dituzten akatsetan erortzen da.

Gazte-hizkeran ere komenigarria da euskal sena, euskal esamoldeak sortzeko. Betiko adibidea da, baina ez dugu haserretzen garenean erabiltzen dugun hitzik, ez dugu betiko gaia den sexuaz mintzatzeko hitzik... Beraz, guk sortu behar ditugu, euskal senaren bidez *masturbazioa* esan beharrean hainbat esamolde lortu dira: *xagua klikatu, santageda jo, kanpaia jo...* Eta beste hainbat hitz sortzeko beldurrik ez dugu izan behar, gure sormena eta sena batu eta hitz egokiak sortuko baititugu. Lagun batek esaten duen moduan: siesta-txorta... Denok ditugu baliabideak behar ditugun esamoldeak sortzeko.

Bide hauek (irakaskuntza, komunikabideak, transmisioa...) huts egiten badute, ez da erraza izango erregistro kolokiala lortzea.

Erabilera

Etengabe moldatzen dugu hizkuntza adin eta egoera desberdinetara. Adin eta egoera bakoitzak hizkuntza eredu batzuk ditu eta horiei jarraitzen zaie. Euskaraz eredu horietako batzuk egin gabe daude, eta falta diren ereduak sortu egin behar dira, erabileraren bidez.

Erabilera garrantzitsua izan da bai ahoz, bai idatziz.

Ahozko erabilera

Ahozko erabilera da euskara bizirik mantentzen duena. Ahozko erabileraz heldu gara gauden lekuraino. Transmisioa ahoz egiten da, gurasoek seme-alabei ahoz transmititzen die hizkuntza, euskara. Ahoz egin da orain arte. Orain, gero eta gehiago dira euskaldun berriak, transmisioz jaso ez dutenak eta euskara ikasi dutenak.

Badihardugu⁴ euskara elkarteak ahozko jarduna hobetzeko proposamenak idatzi ditu liburu batean. Lehen pentsa ezina zen ahoz nola jardun behar genuen inori

⁴ Badihardugu euskara elkarte (2005) *Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak*. Badihardugu euskara elkarte.

Euskalkiak eta gazteak

esatea. Baina, gaur egun, erdararen eraginaz, batuaren eraginaz... nahastuta gaudela nabari da. Eta ez da hori bakarrik. Lehen gurasoek argi zeukaten zer zen zuzendu behar zena eta zer ez. Gaur egun, gurasoek ez dakite zer zuzendu, zuzentzen dutena agian batuan hala esaten da, eta seme-alaben aurrean nabarmen gelditzen dira, lotsatuta. Horrela, beraien hizkera gutxiesten dute, eta egiten diren akatsak zuzentzearen eginkizun hori ez dute euren gain hartzen.

Gurasoak dira umeen edo gazteen hizkuntza eredu. Baina batzuetan guztiz alderantzizko bidea hartzen du horrek. Euskaraz ondo egiten duen guraso batek umeak edo gazteak egiten dituen akatsak bereganatzen ditu.

Badihardugu euskara elkarteak aipatzen dituen kontuak Ondarroan ere argi eta garbi gertatzen direla ikusten dugu. Gurasoek segurtasun falta handia dute, beraien hizkuntza ondo ezagutzen badute ere. Zalantzak sortzen zaizkie hitz guztiekin.

Badihardugu euskara elkarteak euskararen entzuten diren akats nagusiak zuzentzeko, eta horien inguruko zalantzak argitzeko materiala eskaini die Deba Ibarreko herritarrei.

Deba Ibarrean egiten diren akatsak Euskal Herriko euskalki gehientsuetan egiten dira, beraz, euskaldun guztiontzat da baliagarria liburutxo hori.

Deba Ibarreko akatsetan oinarrituta Ondarroan egiten ditugunak ikusiko ditugu, eta liburuan agertzen ez direnak ere aipatuko ditut, okurritu ahala:

-juten ga plaire? → jungoa plaire?

-jolastuko dou? → jolastuko ga?

-jo eizta → jo einau

-neuri ikustetzazunin → neu ikusten nazunin

-sing vs. pl: praka gorrixak jantzirot → praka gorrixak jantzitxuaz

-guk ez genkigun → guk ez genkixen

-ni enitxan jungo → ni enitxake jungo

-guk ez giñan ixan → gu ez giñan ixan

-guk ez gendun eñ → guk ez gendun eñ (analogia, zuek → guk)

-geuekin etorten da → geuaz etorten da

-Igor bara? → Igor hor da?

-ze ordutan? zazpirak? → zazpiretan

-lau terdi gelditxu na → lau terdixetan

-dantzi te gero → dantzi amatxu te gero

Erdararik hartutako lokailuak eta egiturak

- a ke eztakixule? → ezetz jakin
- eske... → ixan be, eta, baiñe
- asi ke → bai, eta, pentsaxu..., ordun...
- aunke → natxe... halan da be
- porke → ze, ...eta
- ya ke → -etik, -ez
- osea → haude, nahirok esan...
- siesti bota → siesti eñ
- fubolin jolastu → jokatu
- beste egunin → ontzungun
- merezirau peni → merezirau

Ahozko jardunak garrantzi handia dauka gure gizartean, nahiz eta orain idatzizko jardunak duen indarrik handiena.

Idatzizko erabilera

Idatzizko erabilera asko aldatu da. Teknologia berriak sartu direnetik, euskalkiz idazten dira gauzarik gehienak.

Ondarroan, gazteen artean oso ohikoa da mezuak ondarrutarrez bidaltzea, eta ohituta daudela esaten dute denek, baina artikulu luzeago bat jartzerakoan zer gertatuko litzatekeen ikusi egin behar.

Gazteak baino apur bat zaharragoak direnei, akaso, gehiago kostatzen zaie ondarrutarrez irakurtzea. Halako perfila dutenak: 40 urtetik gorakoak, mugikorra horrenbeste erabiltzen ez dutenak, Interneko foroetan sartzan ez direnak, eta lehenengoetariko Ikastoletako seme-alabak direnak, batuaz ikasi dutenak, alegia.

Mezuak idazterakoan, askotan ondarrutarrez idazten ditugu, baina batuko arauak erabiltzen ditugu. Bizkaieraz ikasitakoek ere ez dute bizkaierazko ortografia-arauak aplikatzen, batukoak baizik. Eskuko telefonotik hartutako mezu batzuk idatziko ditut, nire lagunak niri bidalitakoak.

Joe kokota? Ederra faeni. Zuk on reposo ein! Ta beru jarri kokotin.2xar bazatoz abisa ok? Ni gabearte biharrin naz baine jakitxeko.mx asko mine dakazun lekun.jaja

Txikita, giro agradabli dakazu plaxan pasiateko, lau kato daz bakarrik, euzkirik ezta bañe bueno!

Euskalkiak eta gazteak

Katt azkanin ez nator bazkaltzea. Oihane etorrire ta beraz ebiliko na, iluntzin ikusten ga.

Hola matxi! Zelaik? Aujta asko? Nik bixkat bakarrik.. Leiren errgalu zeur kontur, prisbaik, ast guztin eztot ikusiko ta astburun bez asik.. Bo, musuk, gero art.

Orain dela ez asko ondarrutarrez idazteko “arauak” atera zituzten mahai gainera Gotzon Iparragirre eta Naroa Leonek. Ondoren, ikastoletan ondarrutarrez nola idatzi behar den ikasteko fitxa batzuk sortu zituzten, ikasleek idatzian ere euskalkiarekin lotura izateko.

Hasiera batean, Ondarroako lexikoa berreskuratzeko lan bat egin nahi zen, baina lexikoarekin batera ondarrutarrez idatzi nahi zutenek oinarri bat izatea ere garrantzitsua iruditzen zitzaien. Ikasleak nahastu egingo zituztela ere pentsatu zuten, horrenbeste ararekin (batuarekin nahikoa izango ez balute bezala), baina era berean “pentsaten dou euran adierazpen gaittasune aberasteko modu bat be ixan leikela, eta hizkuntzin beran ingurun hausnarketa sakonauatan sartzeko bidi be emon leikela” aipatu zuten Iparragirrek eta Leonek beraien adierazpenetan.

Ondarroan egon zen ahozko hizkeraren lehenengo jardunaldian Koldo Zuazok argi utzi zuen euskalkia nola idatzi behar den arautzea kontu bat dela, eta ikastoletan sartzea beste bat. Zuazok argi eta garbi esan zuen irakaskuntzako hizkera batua izan behar dela, zalantzarik gabe.

Hala ere, ondarrutarrez idazten duenak eta arau horiei jarraitu nahi dienak arau horiek hor izango ditu. Beste aldetik, ondarrutarrez idazten dutenak, aske eta nahi duten moduan idazteko eskubidea daukatela esango nuke, ahoz egiten dugun moduan.

Kike Amonarrizen ustetan “euskalkiak arautzen baldin baditugu eta euskalkiak estandarizatzen jotzen badugu daukaten indar hori galtzeko arriskua ere eduki dezakegu”. Gainera, izugarritzko nahastea sortuko litzateke, bateko arauak direla eta bestekoak direla. Kontua ez da euskalkiz ez idaztea ere, gero eta gehiago idazten baitugu. Baina jakin egin behar dugu noiz ari garen lagun artean (mezuak, SMS, gutunak...), eta noiz ari garen kanpora begira (aldizkariak, foroak...). Aldizkari batean arautuago idazten da lagunarteko mezuetan baino.

Euskalkiak eta gazteak

Orain arte, euskalkiek ahozko erabilera baizik ez dute ezagutu. Orain, teknologia berrien erabilerak idatzizkoa ere martxan jarri du. Euskalkien idatzizko erabilera gauza berria denez, zalantza ugari sortu ditu. Lagun artean ahozkoa erabiltzen dugun moduan erabiltzen dugu idatzia ere. Baina kanpora begira egitean nola idatzi behar den pentsatzean sortzen da zalantza.

Esan eta esan nabil teknologia berriek ekarri dutela euskalkiz idaztea, baina lehen ere bazeuden gutunak, postalak... eta horrek nola idazten ziren? Nik gordeta ditudan postaletan ondarrutarrez idatzitakoak aurkitu ditut bakarrik. Orain, egia da, idazteko aukerak areagotu direla, eta gehiago idazteko ohitura dugula ere, baina lehen (orain 10 urte) ere idazten zen euskalkian.

Ahoz eta idatziz gure euskalkiak aldaketak izan ditu urteak aurrera. Belaunaldi belaunaldi hizkera ez da berdina, hau da, gazteek, helduek eta zaharrek ez dute berdin hitz egiten, aipatu bezala. Aldaketa horien zergatia edo aldaketa horiek zertan datzan azalduko da jarraian.

Euskalkien inguruko aldaketak (12. ikasgaiako 7. atala)

Koldo Zuazok sei euskalki bereizten ditu: mendebaldekoa, erdialdekoa, nafarra, nafar-lapurterra, zuberotarra eta ekialdeko nafarra.

Ondarroako hizkera mendebaldeko euskalkian kokatzen du. Mendebaldeko hizkeran ezaugarri batzuk eremu osoan betetzen omen dira, baina bazterrei erreparatzen badiegu, Ondarroa esaterako, alde handia somatzen da bertako ezaugarrietan, punta batetik beste puntara.

Ondarrutarra, bazter hizkera denez, ezaugarri bereziak ditu, oso nabarmenak direnak.

Ondarroan ez dago euskaldun elebakarrik, egonez gero bakar batzuk. Eta ez dago bere euskalkia bakarrik hitz egiten duen gazterik. Gaur egun, norberaren euskalkia ez eze, batua ere ezagutzen dute. Familia askotan, gurasoak euskalki desberdinetakoak dira, edota hizkuntza desberdinetakoak. Hainbat gazte txikitatik bi euskalkiz eta batuaz (eskolan) jabetu dira. Familia gehienetako gurasoak biak ondarrutarrak edo bata ondarrutarra eta bestea inguruko herrikoak dituzte. Inguruko herriak diodanean, Berritxu, Markina, Mutriku, Deba eta abarrez ari naiz. Agertzen dira Eibar, Bilbo... ere, eta baita harantzagokoak ere Andaluzia, Portugal, Galizia, Katalunia...

Euskalkiak eta gazteak

Inguruko herrietako eta Ondarroako hiztun askok euskaraz hitz egiten dute bai beraien artean, bai seme-alabekin, bakoitzak bere euskalkia darabilelarik.

Eibar eta Bilbo ingurukoak, berriz, erdarara jotzen dute, erdaraz hitz egiten dute beraien artean, eta seme-alabei ere erdaraz hitz egiten diete. Zer esanik ez Andaluzia, Portugal, Galizia... ingurukoek, hainbat eta hainbat galiziarrek eta andaluziarrek euskara ikasi badute ere.

Euskalki desberdinetako gurasoak dituzten gazteek euskalki bat baino gehiago entzuteko aukera dute, eta euskalki batez baino gehiagoz jabetzen dira txikitatik. Erdaraz pixkanaka-pixkanaka jabetzen joango dira, telebista, liburu, eskolako ikasgai eta abarren bidez. Gurasoak erdaldunak dituenak erdara ere etxetik jasoko du. Baina, nahiz eta guraso erdaldunak izan, Ondarroan bizi badira, euskara ezagutuko dute, eta ulertzeko gai izango dira.

Ondarroa Bizkaiko azken herria izateak eragin handia du. Mutrikurekin, Gipuzkoarekin, muga egiten du, eta 3 km-ra giputz hitz egiten duten herritarrak edukitzeak, beste euskalki bat ezagutzeko aukera eman digu. Gure euskalkia, ondarrutarra, giputzarekin oso lotuta omen dago, hitz asko gipuztetik hartu baikenituen, eta baita alderantziz ere. Horregatik, euskalki hori inolako arazorik gabe uler dezakegu. Etxean, guraso biak ondarrutarrak dituenak ere arazorik gabe ulertuko ditu mutrikuarrak, harreman handia dagoelako bertakoekin.

Ondarroan gehien bat egiten diren hizkerak ondarrutarra, mutrikuarra, berrituarra eta markinarra dira. Bizkaiera da nagusi, eta ondoren Mutrikuko "giputza" Koldo Zuazok giputza dela esaten utziko balit.

Beste euskalkiak ulertzeko ez da egoten arazorik, normalean, iparraldeko euskalkiak ulertzeko ezik. Iparraldearekin ez dugu harreman handirik izan, eta horregatik ez dugu beraien hizkera ondo ezagutzen, eta horrek arazoak sortzen ditu ulermenean.

Etxetik aparte, unibertsitatean, bidaietan... euskalki desberdinetako jendea ezagutzen da benetan. Inguruko euskalkiak etxean utzita beste errealitate bat ikusten da. Inkesten arabera, ondarrutarrek kanpoan ere, euskalki gehienak ulertzen dituzte, arazo handiegirik gabe. Kontrakoa gertatzen da, ordea, jendeak ondarrutarra ulertzeko izaten ditu arazoak. Askotan abiadura kontua izaten da, edo gaiaren arabera. Ondarroan oso azkar hitz egiten dugu, eta berba asko jaten ditugu. Hasiera batean normala da ez ulertzea.

Komunikabideek ere euskalkiak ezagutzeko gero eta aukera handiagoa ematen dute. Ondarroan lau aldizkari argitaratzen dira (ziren); bat, Bolo-bolo, ondarrutarrez idatzita ikusi genituen lehenengo testuak argitaratu ziren bertan; bigarrena, Arranondo, bizkaiera jasoan idazten dute, Augustin Zubikaraik sortutakoa berau; hirugarrena Ondarroa aldizkaria, historiazaleen aldizkaria da, Ondarroako historiak kontatzen ditu eta batuaz idazten dute; azkena, Mendebala aldizkaria, ondarrutarrez idazten dute, eta gazteei zuzendutako aldizkaria da.

Ondarroan bertan lau aldizkari dauzkagu, eta aldizkari bakoitzak hizkera egokiena zein den aukeratzen du.

Horrez gain, Ondarroatik irtenda, bide ugari daude euskalkiak entzuteko, gaur egun. Horietako bat da *Euskadi Gaztea* irratsaioa. Bertara, pila bat lagunek idazten dituzte mezuak euskalkietan eta beste hainbestek deitzen du zerbaitetaz hitz egiteko, bere euskalkia erabilita. *Matraka* ere badaukagu, eta beste hainbat webgune ere bai. Internetek asko zabaldu du bidea. Blog delakoetan, foroetan... bakoitzak bere hizkera erabiltzen du. Euskalkiak ezagutzeko erreztasunez beteta gaude.

Orain, gure gurasoek ezagutu ez zuten egoera baten aurrean gaude. Eskuko telefonoak, messengerra... dauzkagu eta nobere hizkeran idazten ditugu mezuak. Abantaila ugari ditugu, aurreko belaunaldiekin alderatuz. Gurasoak mezuak bidaltzerakoan asko kostatzen zaiela ikusten da, ez dakite ahoskatzen diren soinu asko nola idatzi, ez dakite *s* edo *z* idatzi eta *h* noiz jarri behar den. Hitz bitan esateko: alfabetatugabeak dira. Eta alfabetatu askok ere ez dute euskalkian idazteko erraztasunik. Ondarroan, bere laburdurak direla-eta, nahiko garbi idazten dira mezuak, ahozkoan egiten diren moduan.

Gainera, populazioaren nahasketak eta mugimenduak gero eta handiagoak dira. Gero eta etorkin gehigo ditugu, eta badira hemendik kanpora doazen herritarrak ere. Etorkin batzuk euskara ikasten dute, eta beraien seme-alabak dudarik gabe euskaraz bizi dira lagunekin eta eskolan. Beste etorkin batzuk nahikoa dute erdara ikasita eta seme-alabei beraien hizkuntzan hitz egingo die: frantsesez edo beste hizkuntzaren batean. Hemendik kanpora doazenekin gauza bera gertatzen da, Alemaniara joandako familia batean, adibidez, seme-alabek alemanieraz egingo dute bizimodua, nahiz eta gurasoek edo guraso batek euskaraz hitz egin (egiten badie behintzat).

Euskalkiak eta gazteak

Ondarroan, kaleko hizkerak indar handia dauka, eta nahiz eta familia erdaldunean bizi, kalean eskolako lagunekin... euskaraz egingo dute. Polita da ikustea haur senegaldar bi (ahizpak) beraien artean euskaraz hitz egiten, nahiz eta gurasoekin frantsesez hitz egin.

Inkestaren arabera, gazteek eurek badakite gurasoekiko desberdin hitz egiten dutela. Gainera, askotan adierazten dute gazteen euskalkiaren ezagupena, helduenaren aldean murrizagoa dela. Berba asko eta asko galdu egiten dira, eta gazteek ez dute ezagutu ere egiten. Normala da sektore batzuetan erabiltzen ziren hitzak galtzea; esaterako arrantzan erabiltzen ziren hitzak etab. Askotan erretratuak, herriko esakerak... gazteek ez dituzte erabiltzen, daudenik ere ez.

Batua da komunikabideetan, eskola gehienetan... entzuten dena eta gazteak berba asko batuaz esaten hasi dira, herriko berba asko alde batera lagata. Askotan gazteek esaten dituzten berba horiek gurasoak esatera iritsi dira, lehen erabiltzen zituzten berbak gaizki esanda egongo balira lez.

Batua da idatzirako erabiltzen den hizkera. Batua da kontu formalean erabiltzen dena. Baina lagunarteko idatzia sortu da orain, teknologia berriak direla medio. Ondarroako zenbait jenderi ez zaie erraza egiten batuaz idatzita ez dagoena deskodetzea. Baina, gehientsuenak, modu informalean, lagunartean mezuak ondarrutarrez idazten dituzte. Berdin-berdin egiten zaie ondarrutarrez idaztea eta irakurtzea zein batuaz idaztea eta irakurtzea. Batuan idaztean arauak dituzte lepo gainean, eta ondarrutarrez idaztean, nahi moduan idatz dezakete.

Erdara ere erabiltzen da bai mezuetan bai ahozkoan. Ahozkoan erabiltzen delako erabiltzen da mezuetan ere, jakina. Mezuak idazterakoan ahalik eta ahozkoaren tankera handiena ematen saiatzen gara. Ondarroan, euskara da nagusi, baina badirudi hainbat txiste eta esaera ezin direla euskaraz esan, eta erdarara jotzen da. Mezuak aztertzerakoan adibide ugari daude, euskaraz eta zerbait erdaraz idatzita.

Ondorioak

Ondarroan transmisio bidez heltzen zaie gazteei euskara. Ondarroako gurasoek euskaraz hitz egiten diete seme-alabei, eta hala ez bada, kalean edo eskolan ikasiko dute euskara gazte horiek. Ondarroan kalean euskara egiten da, gazteek beraien artean euskaraz hitz egiten dute, baita hurrek, helduek eta nagusiagoek ere. Ondarroatik irteten direnean ere ondarrutarrez egiten dute, eta ulertzen ez badiete batura edo ondarrutar batu batera jotzen dute. Eta euskaraz ez dakienari gazteleraz hitz egingo diete.

Batua, berriz, oso gutxitan erabiltzen dute ondarrutarrek. Beharrezkoa denean, behartuta sentitzen direnean. Oso artifiziala egiten zaie batua, beste aditz batzuk, beste hitz batzuk... Irakaslearekin, zuzendariarekin, nagusiarekin... hitz egiteko erabiltzen dute batua, eta aurretik aipatu bezala, beraien hizkeran ulertzen ez dienei ere egiten diete. Batua idazteko erabiltzen dute orokorrean.

Teknologia berriak sortu eta idazteko modu berriak sortu dira. Ondarroan, ahoz erabiltzen den hizkera bera erabiltzen da idazteko. Ortografia-arauak, hala ere, batuarenak erabiltzen dira. Nahasketa bat egiten dute gazteek. Kike Amonarrizek aipatzen duen moduan, gazte-hizkeraren ezaugarrietako bat da nahasketa.

Gazteek badakite gurasoengandik desberdin hitz egiten dutela. Badakite hitz batzuk ez dituztela esan behar zaharkituak geratu direlako beraiantzat eta nagusiek bakarrik erabiltzen dituztelako, esaterako, *estadun* (haurdun).

Gazteek euskalkiei buruz duten ikuspegia oso ona da. Euskalkia maite dute, batez ere herriko hizkera, ondarrutarra. Ondarroan, oso harroak izan gara beti gure euskalkiarekin eta gure nortasunarekin. Gustuko dugu gure hizkera, baina gauzak txarto egiten ditugunean ez gara hausnartzen hasten eta ez dugu zuzentzen. Eta dagoeneko berandu da errotuta dauden akatsak zuzentzen hasteko.

Baina, beno, gaizki edo ondo, euskaraz hitz egiten da Ondarroan, eta uste dut, Kike Amonarrizek lehenago aipatu bezala, erabiltzen dugun hizkera "normala" dela, bizi garen gizartean bizita, kanpo faktore ugari daudelako.

Bibliografia

- Altuna, Jaime (2006) *Eskola eta gazte hizkera*. hik hasi 106. zkia.
- Amonarriz, Kike (2005) *Guraso erdaldunen kezka*. Argia 2.015. zkia.
- Amonarriz, Kike (2005) *Ikasgelan eragin, egin dezaten*. Argia 2.021. zkia.
- Arrieta, Yolanda (2006) *Euskaraz (ere) hazi?* Argia 2.056. zkia.
- Askoren artean. *Gazteak eta euskara*. Larrun 106. Zkia.
- Aurrekoetxea, Gotzon (2005) *Bi belaunalditan galduko dira dialekto tradizionalak*. Argia 2.006. zkia.
- Azkarate, Eneko (2003) *Kike Amonarriz: "Eske hau superguaya da"*. Goienkaria (2003-04-30)
- Badihardugu euskara elkarte (2005) *Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak*. Badihardugu euskara elkarte. Eibar.
- Baraibar, Helena; Boan, Kristina (2006) *Eskolak hizketan irakasten ez duen bitartean jai daukagu euskararen normalizazioan*. hik hasi 107. zkia.
- Baraibar, Helena; Boan, Kristina (2006) *Ez da aski euskaraz irakastea, euskaraz aritzeko bideak jarri behar dira*. hik hasi 108. zkia.
- Egaña, Andoni; Garzia, Joxerra (2006) *Ahozkotasuna eskolan lantzeko metodoa*. hik hasi 110. zkia.
- Erriondo, Lore; Isasi, Xabier; Rodriguez, Fito (1993) *Hizkuntza, Hezkuntza eta elebiduntasuna*. UEU. Bilbo.
- Erriondo, Lore; Isasi, Xabier; Rodriguez, Fito (1993) *Hizkuntza, Hezkuntza eta elebiduntasuna*. UEU. Bilbo.
- Gonzalo, Jon (2006) *Ikastola garaian euskaraz, eta ondoren?* Argia 2.043. zkia.
- Iriarte, Iker (2005) *Kike Amonarriz: "Gutziz berria den errealitate soziolinguistiko eta soziopolitiko baten aurrean gaude"* (2005-04-07)
- Lasagabaster, Olatz (2005) *Gazte hizkerari buruz hizketan*. Diario Vasco (2005-04-07)
- Lendinez, Ainhoa (2005) *Euskara koadrilan muturra sartuta dabil*. Argia 1.979. zkia.
- Lendinez, Ainhoa (2005) *Juan Martin Elexpuru: "Herri hizkerari eusteko, idazten erakutsi behar litzateke"*. Argia 1.983. zkia.
- Lendiz, Ainhoa (2006) *Korridorean eta ikasgelan euskara gutxi*. Argia 2.038. zkia.
- Lezeta, Marije & San Martin, Elena (1991) *Giro urbanoko gazteak eta euskara. Deba bailarako gazteen iritziak gazteek interpretatuta*. UEU. Donostia.
- Oiarzabal, Mailo (2005) *Gazte hizkerari buruzko jardunaldi jendetsua gaur amaituko da*. Gara (2005-04-07)

Euskalkiak eta gazteak

-Sarobe, Ainara (2005) *Ermuko erdar giroan euskarazko bi hedabide*. Argia 2.002. zkia.

-Zuazo, Koldo (2000) *Euskararen sendabelarrak*. Alberdania. Irun.

-Zuazo, Koldo (2003) *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*. Elkar. Donostia.

-Zubeldia, Unai (2005) *Gazte hizkera beti da boterearen hizkuntzaren kontrako hizkera*. Berria (2005-04-07).

-Zubeldia, Unai (2005) *Gazte hizkera indartzeko dauden oztopoak azaleratu dituzte Azpeitian*. Berria (2005-04-07)

<http://www.soziolinguistika.org/eu/node/920?PHPSESSID=981fb4ba544b39e4c15ed298f263b093>

Eranskinak

Inkesta	29
Herritar nagusi baten transkribapena	33
Baserritar nagusi baten transkribapena	35
Herritar gazte baten transkribapena	37
Ondarroako hizkerak: herritarra vs baserritarra	38

Inkesta

HERRIA:

ADINA:

1. NONGOAK DIRA ZURE GURASOAK?

- o GURASO 1: _____
- o GURASO 2: _____

2. EUSKARAZ HITZ EGITEN AL DUTE ZUREKIN ETA BERAIEN ARTEAN?

- o BAI
- o EZ
- o _____

3. ZEIN EUSKALKITAN EDO AZPIEUSKALKITAN HITZ EGITEN DUTE?

- o GURASO 1: _____
- o GURASO 2: _____

4. EUSKARAZ HITZ EGITEN DUZU...

- o LAGUNEKIN
- o ETXEKOEKIN
- o LANKIDEEKIN / IKASKIDEEKIN

5. NOIZ ETA NOREKIN ERABILTZEN DUZU BATUA?

- o BETI, EDONOREKIN
- o ONDARROAKOAK EZ DIRENEKIN
- o NIRE EUSKALKIA HITZ EGITEN EZ DUTENEKIN
- o INOIZ EZ, OSO ARROTZA EGITEN ZAIT
- o BEHARREZKOA DENEAN (ZUZENDARIAREKIN / IRAKASLEAREKIN...)

6. ZENBAT EUSKALKKI ULERTZEN DITUZU?

- o DENAK ULERTZEN DITUT, ARAZORIK GABE
- o IA DENAK
- o NIREA BAKARRIK

7. ONDARRUTARRAK EZ DIRENAK ULERTZEN AL DIZUTE ONDARRUTARREZ HITZ EGITEN DIEZUNEAN?

- o BAI

- EZ
- BATZUTAN. ZEREN ARABERA? _____

8. ONDARROAN EUSKARA BAI BAINA, ERDARA ERE ERABILTZEN DUZU?

- EZ
- BATZUTAN
- SEGUN NOREKIN ARI NAIZEN
- BAI

9. BILBO ETA DONOSTI ETA ANTZEKO HIRIETARA JOATEAN, ZER HIZKUNTZA ERABILTZEN DUZU ZERBAIT GALDETU BEHAR DUZUNEAN?

- EUSKARA
- ERDARA
- ZERGATIK? _____

10. «GAUR EZIN IXAN NA ETORRI, BAÑE BIXAR ETORRIKO NA, ZE DERRIGOR BIRDOT EMON BIZTAZUN APUNTIK».

— ASKO KOSTATU AL ZAIZU ESALDIA ONDARRUTARREZ
IRAKURTZEA?

— ERRAZAGOA EGITEN AL ZAIZU BATUAN IRAKURTZEA?

11. NORMALEAN, MEZUAK, SMS, MESSENGER... ONDARRUTARREZ ALA BATUAN IDAZTEN DITUZU?

- ONDARRUTARREZ
- BATUAN

12. KONTURATZEN AL ZARA UDALETXEKO, HERRIKO DENDEN, BANKUEN... PUBLIZITATEA ERDARAZ ALA EUSKARAZ EGOTEN DEN?

- BAI
- EZ

13. «IKUSI NETZUN ATZO PLAXAN».EUSKARAZ ZEOZER GAIZKI ESATEN DUGUNEAN, ZERGATIK EZ DUGU ZUZENTZEN?

14. IDATZI ONDARROAKO ZUBI ZAHARRAREN DESKRIBAPENA
ONDARRUTARREZ.

15. IDATZI GUTUN BAT, PASA DEN OSTIRALEAN EGIN ZENUENA KONTATUZ
(HAU ERE ONDARRUTARREZ).

16. GAZTEOK ETA HELDUEK DESBERDIN HITZ EGITEN AL DUZUE?

- BAI
- EZ

— ZERTAN NABARITZEN DUZU?

17. OROKORREAN, ONDARROAN EUSKARAREN EGOERA ONA DELA USTE AL
DUZU?

— ZERBAIT AIPATU NAHI BADUZU, AURRERA:

ESKERRIK ASKO INKESTA HAU EGITEAGATIK.

INKESTA HAU EUSKALKIAK ETA GAZTE HIZKERA AZTERTZEKO LAN BAT EGITEKO PRESTATU DUT.

Herritar nagusi baten transkribapena (Maria Pilar Lasarte, 70)

-Au egixe ra bentzát. Eun batén se eín gendún óntxe kontáko ´tzuét, bañé rá egixe, benetáku(k).

-kónta kónta!

-Ba, goxán da beián bixí giñán, andrá salada bat bixí sán beián eta gu bixí giñán béste neská bat eta ní, te gustísko siríñak ixán giñán, esín soséatakótxupe bai eta, etxín jósten etxén gendún bañé, jostékúpaño buruáuste géxa emóté ´skún aretxéi andriái bixkát sirínkeixak étxi te, en fin, beti gébisen esín pentzáta: se engó ´u gawr? se engó ´u gawr? Da orréi andrí orréi, etxekó etxekú san da, da lagún andíxe gendún de bixkát e, pasa(k) etxén giñán béras; da egun baten esan gendún e, gixóna il gákon ba, da ate báiko kúartuk eukesén, antxíñakú re ba, eta eukán iseítxe tráji berán gixónaná, tráje bat berán bízitza gustín eukí balá esaté ban da, eskóntzeko es ébala eiñ, bañe eskóndute géro artú balá dirún bixkát, or e, atúnetan ero, da tráje bat ei ban, da a gáñea tráje bakarra nátxe gixóna il iséitxe eukitxe ban antxe goxán, kolgáta. Esán birót ero es? Kolgáta eukitxe ban. De, baákixu se en bi gendukén? Gixóna il gákon ba, da axé tráji jantzítxe ipíni bi ´tzáw oián gáñin e, séose ta, buéno ba ekárriko ´u kalábasa bat, se urrín geunkán solú, soló bat, basérrí bat. Ekárrí gendún kalábasa bat, ein gentzasén súluk eta súrrak eta gáwsak, bañe eskaskún ondo géatzen, de jun giñán arótz bat euán antxe, erdi sinbérguentza bat, eta ondo konpóntzen giñán aréas, neskatílla gástik giñán da ba gu, de eiskúsen pálo bi bost atzámarreas tráji sartzéko, txakéti sartzéko bentzát. Da geró lintérnak eta erósi gendusén, lintérnatxu bat eta píli ipíni gentzán, antxe urrín euan da MaiSalomene kó dendí, sartú gentzán axé, ipini gentzasén prakak jantzi palúai, da atzamárrak tente-tente dotxúsela, beíxak berán lintérniaz ikusten gakosén suló andibí, súrtxu bape ipíni geuntzán, buéno ba, da oián gáñin ipíni gendún, oián gáñin, txárrak giñán bixkat, bueno eskíñan txarrak e! Estái nik ser giñán, txárrak es! Se on éstot ikústen olakó ixáteik eta ordún guk ba óndo pasatén gendún de. Geró andriói etórrí san, alabín úmik saintzé sitxún antxe marísmi eukán urre-urre-urrín de aráxe juté san úmik artúte; Jaime ta eukasén, Jaime de Borbón esate ´tzán da, Clarita, kuadrílli eruté sitxún úmik artúte araxé (((atzea beran ama)))) Ortisénea, konsérbas Ortís! araxé! biarréa. De etórrí san, etórrí san da txíí txíixé san etxí, ate gústik irátxe, kuarto gústik irátxe, de nun ikustén dau gixóna antxe, berán gixóna raláta, eta en gákon ondésa be, eta ondésa pasáakonín, gu eskiñán nai jun,

eskendún nai jun geu giñála esatéko ba, enda pasáakonín ondésa jun san ándrakána da etórri sin: Casimíre andíxe, Dólos Dónosti, Pétra Txitxárrro, da orí enu esátea bañe, enéuke esan bir bañe, Peléle ero orrén ama Rufina da kuadrílla andí bat, enda karo, ikúsi benín ba eskákoen gustá ta bastánte txárto pasá gendún, bañe geunkán, askanengóko písun iñór esan bixi be, de iñór esánetik bixí étxe gendún aráxe jun, antxé járri te ixixílik eon es igartéko geu gásena, bañe pentzá ben geu giñána. Oso, amápe errixetán ei stán da, atté itxosun neukán bañe, attái esangó tzála ta... attán billurripe enéukan bañe bueno, euráná géxa amáná ta, aumáná ta géxa. Bentzát pasá san orí eta txárto, txárto urté skun bixkát, se sústo andíxe pasá ban, ondésa beñ, ixé il san andrú te gáusa andíxak pasá sin ordún. Bueno bañe óndo pasáten gendún be ta aréas eskiñán géatu.

Baserritar nagusi baten transkribapena (Kontxi Arantzamendi, 53)

Egúnero júte giñén plasá sórtzirek ingúrureko ero sórtzirek lauren gitxía ingúrureko júte giñén da, ástuk lotu ametxe eméndiko partín, on serak eta dasén tókixen, fabriki, pabellói sárrak eta gastétxi euén tókixen, antxe eskíñan lotu ástuk, eta gero artu kápasuk eta kántiñek eta ara entráda eta an sápatak eta sápatilla sárrak eta... basás béteta erute gendúsen, da an aldátu da gero ártu ostábe kántiñek eta pótuk eta plasá, eta an plasán egon da errékauk edo sóse fálda sana ein de etxéra.

Sasó baten eskóla be júte nitzén. Plasá jun ta gero partikularrea eskola be júte nitzén. Léleno améntxe Gozikén amáiru úrtarte, gero partikularrín ibíli nitzén pixkatén. Plasá jun, ama júte san egun bátin eta ni béstin, ni ba bitxártin sose euana fruti txe holako sose melakótoik eta eote sin ordun kantídadi ta aretxek eta sáltza bajéte sin. Eta gero astó gáñin etxá. Jarri astó gáñin eta astun etxá.

Ordun jentasko etorte san Ondarrutik, Ondarrun euesen jenteik serenak etorte sin ona, kategorixakuenak, ondo euesenak, jente ondo euesena, Ortisenekuk eta... jente sera... alkatín semik eta... Amen jente asko ibili de, Miren Josune be or uteten dabena, PNVku, Aristondo? Ba amentxe ibilitxaku de gastetas, eta besti entrenadori urteten dabena, bibotedune... Ondarru? A be amentxe ibilitxaku de, eta aren anaixak be bai. Danok batea , maistra batas, danok urte diferentitakuk! Herrixetan maistra bat egote san. Bañe Ondarrutik jente asko etorte zan, da lena lena amen Erreterixekuk eta or Kateiko Nikasi be pentsetot amentxe ibilitxe dauela eskolan esaten dabela. Pertikatik eta Burgotik eta...

Lena jente asko batze san eta gero orrek Ulesurik ekarte ban Ondarrutarrak. Oines e! Es euan kamiñoik eta! Egunero jun da egunero etorri, ta berton egote san komedora, berton emototzen baskarixe, egote san neska bat baskarixe eitxen, da berton baskarixe jate ben. Jenerue ekarte ben eurek, astuetan bixaltze sitxusen jeneruk gurasuk eta gero antxe sera eñ. Gurasuk bixaltze ben jeneru astuetan ekarteko eta gero sera lenteja ta garbantzo ta orixo ta... dana! Gu etxa etorte giñen.

Eskolak erderas emoten gendusen... euskeras eitxe banak kastigu. Euskeras eitxe banak bixamonin peseti erun bir ixate ban eta kokotin aitte santu ipinitxe. Euskeras eitxe banai kokotin e sera... medalli sokias ipini eta kastigu medalli, beste batek eiñ arte euskeraz aretxeas. Gero besti ikusten sendunin etxen dauela arei pasau eta a eukanak bixamonin peseti.

Guk dana erderas eitxe gendun, on be idasteko eta irakurteko ta be erderas obeto eitxen dou, osake euskeras irakurri be gatxaua etxen dou, beti erderas ikesitxe, erderas asko be... Ta notisixa bat bada ba... amen porejemplo euskeras ipintxen dau esta? Hitzan, ta irakurtesu euskeras, bañe len etorte sanin periodikun ero sose notisixi etorte sanin euskeras o karta bat bixaltzetzenin ba euskeras da erderas bada,

Euskalkiak eta gazteak

*lelengoko bider irakurtetu euskeras bañe esatesu estot ondo ori eñ, erderas irakurri
biar obeto irakurteko.*

*Euskeras ba ontxe, onetxekin pixkat. Niri esateoste irakurri be tono diferentin ero
eitxen doule euskeras, diferente, oseake raro etxen doule euskeras.*

Herritar gazte baten transkribapena (Karle Beristain, 25 urte)

Ni ondala bost urte Ameriketa junitxanin, ba interkanbixo bat etxea junitxan eta enekixen inglesik, bañe ixebes e!! bañe bueno eskolatik gixusenes eta jente gexa euanes, eta tartin neure launak, ba neu be anima einitxan. Eta bueno a la abentura!

Bostoneko urrin euan erri batea jun giñan Topsfield ixeneku, eta ille osoako jun giñan! Bera errixe super diferenti en gastan, dana etxes beteta, bañe etxik osea txaletak morukuk, danak iru pisokuk eta, danak euran jardiñakin... eta etxe bakotxan ondun iru eta lau kotxe be bai ikusi gendun!! Bua... eske emoten ban aberatzen errixe zala. Bañe klaro gero konturatzesa erri gustik antzeakuk disela.

Etxea sartu eta señaikin komunika bir se inglesin enekixen gausa andirik esaten. Egixe esan, asieran eneban ixer esaten, an eote nitxan ixil-ixilik. Bastante txarto pasa neban lelengoko asti, bañe egunero eote nitxan launakin be, eskurtziñoik eta etxen gendun eta baten etxea jun, bestin etxea jun... Han esta erririk amen morun, eta ba etxitan batzen di, ero bestelan sentro komertzialetan.

Eurak etxeko familikuk super majuk sin, eta etxeko alabi, neure pareji esangou, be naiko maji. Eta oixe, gañea eurak erderas be baekixe, neure parejik eta eskolakuk, eta erose momentutan ba es bagiñan ulertzen erderas esplikati intentatestan.

Gero... asko asko ikasi neban, bueno nekixena baño gexa jakinye buelta eineban bentzat.

Nueva Yorken be eon giñan eta Torres Gemelas be ikusi gendun, justo torrín aspíxan geunkan hotela...

Eskoletan jenti eroselan jantzitxe igual es? Eta jentik estotzan alkarrei txarto beatzen eta ixer... askatasun gexa morun euken naidabena etxeko eta jasteko. Baine jastik rolluk flipaten lagastan.

Siarruas eta kriston sorrotzak di, istitutun eta es ben laaten erreten, eta istituto inguruko kalitan bes. Geure laun batei kalin esatzen siarru amatateko... jenti kontzientzixaua morun da. Alkolas be bardin, kalin esileike eran eta jenti pelikuletan morun boltzita marroiaz ibiltxen da kalin... Bañe ori kalin, se etxin eraten dabe, ero nire etxekuk bentzat erate ben.

Eta oixe ba kriston esperientzixi, toki majuk, jente maju eta ingles bixkat ikasitxe etorri nitxan, asike no se puede pedir mas!!